



Aurelia Arkotxa euskaltzain oso eta euskal idazleari buruz idatzitako artikulu bat irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakurri testua eta, bertan esaten dena kontuan izanda, aukeratu erantzun zuzena.

— I. testua —

Aurelia Arkotxa: amaitzen ez den haurtzaro librea



Baigorri jaioterri-
tik 167 kilome-
trora dagoen
leku bat hautatu du bere
haurtzaroz mintzatzeko
Aurelia Arkotxak: Nafa-
rroako Erriberako Fonte-
llas. Bertan eman zituen
udako oporraldiak, izeba

baten etxean, 6 urte zituenetik 17 egin artean, familia-
rekin batera.

Etxean euskaraz baino egiten ez zuenez, Fontellasen
ikasi zuen gaztelaniaz mintzatzeko, urte batzuk lehe-
nago, Baigorriko eskolan, frantsesa ikasi zuen «natu-
raltasun» berberaz.

Fontellasko inguruak zaintzen zituen basozainaren
adiskide egin zen Aurelia Erriberako egonaldietan, eta
haren lan-ibilaldietan askotan laguntzen zion. «Goiz-
zean goiz irteten eta eguerdian itzultzen ginenean». Fonte-
llasko bazterrak ondo ezagutzeko aukera izan zuen
basozainaren ondoan. Bazkalondoan, herri osoak egi-
ten zuen siesta. «Arratsaldean berriro irteten zen jen-
dea, eta ni ere lagunekin irteten nintzen. Gero oso
berandu arte egoten zen jendea kanpoan; freskoago

egoten zen kalean etxean baino». Garai bateko kanti-
naren eta jatetxearen eraikinak abandonatuta baina
zutik eta osorik daude oraindik, eta orduko kartel ba-
tzuk irakurtzeko moduan. Haur garaian, igande eta
jaiegunetan jende asko joaten zela hara oroitzen du
Aureliak, eta berak eta bere lagunek izozkiak jaten zi-
tuztela.

Aureliak irakurketarako baliatzen zuen askotan sies-
tako tartea; txikitatik izan baitu horretarako joera eta
zaletasuna. Baigorriko garaian, hamar urteak bete au-
rretik, komikiak irakurri ohi zituen, aitzak Baionatik eka-
rriak. Baina aitaren edozein liburu ere berdina irakurtzen
zuen, Georges Simenonenak, adibidez, eta gazteen-
tzako liburuak ere bai... «Ez nuen gauza finko bat ira-
kurtzen, denetarik baizik».

Fontellasko egonaldietan, aldameneko emakume
batek utzitako liburuak irakurtzeko ohitura hartu zuen.
«Emazte horrek paketeka ekartzen zituen liburutegitik
Corin Telladorek nobelak eta Far Westekoak. Galde-
tzen zidan ea irakurri nahi nituen, eta nik denak irakur-
tzen nituen».

«Nire mundua nuen, nire abenturak nituen, sekula ez
nintzen aspertzeko», dio Aureliak haurtzarora gogoratuz.

berria.info (moldatua)

Aukera ezazu erantzun zuzena eta idatzi beheko laukietan, adibidean egin den bezala:

Adibidea:

0. Zeri buruz hitz egiten du Aurelia Arkotxak?

- a. Bere txikitako lagunei buruz.
- b. Bere iazko oporrei buruz.
- c. **Txikitako oporrei buruz**

1. Nongoa da Aurelia Arkotxa?

- a. Fontellaskoa.
- b. Baigorrikoa.
- c. Nafarroako Erriberakoa.

2. Zein hizkuntzatan hitz egiten zuen txikitan?

- a. Gurasoekin euskaraz eta frantsesez.
- b. Udako oporretan gaztelaniaz.
- c. Eskolan euskaraz eta frantsesez.

3. Zer atsegin zuen Aureliak goizetan?

- a. Ezer ez egitea, bero handia zegoen eta.
- b. Adiskideekin ibilaldiak egitea.
- c. Fontellasko parajeak ezagutzea.

4. Bazkalostean zer egiten zuen?

- a. Lagunekin irteten zen, kalean etxean baino hobeto egoten zen eta.
- b. Herrikoekin elkartu eta lo egiten zuen.
- c. Askotan irakurtzen zuen.

5. Nolako liburuak zituen gustuko?

- a. Batez ere, aitak Baionatik ekarritako komikiak.
- b. Liburu mota guztiak gustatzen zitzaizkion.
- c. Gazteentzako liburuak: Simenon, Corin Tellado ...

6. Nola lortzen zituen liburuak?

- a. Bere aitarenak ziren guztiak.
- b. Auzoko batek oparitzen zizkion.
- c. Bere eskura heltzen zen edozein liburu irakurtzen zuen.

Idatzi erantzunak

0.- C	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----



Hernaniko webgune batean idazleak erretzearen aurkako lege berriari buruzko bere iritzia ematen du.

Egitekoa

“Erretzea debekatu du Gobernuak” testutik zenbait zati kendu egin dira eta horien lekuan hutsuneak jarri. Irakur ezazu testua arretaz eta, testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, zenbakiekin markatuta dauden hutsuneetarako **zatirik egokiena** aukeratu behar duzu.

— 2. testua —

Erretzea debekatu du Gobernuak



Badakit tabakoa txarra dela osasunerako, eta ez erretzea erretzea baino hobea dela, baina ezin dut jasan lege berriaren hipokresia. Erretzaileak eta ez erretzaileak. Honek beste

mila iritziren artean bitan(1).... du mundua.

Zibilizazio guztiek erre izan dute historian zehar. Europan, adibidez, hasieran beste gela batera joaten ziren erretzera bazkal ostean. Gizonezkoak ziren orokorrean erretzera joaten zirenak,(2)...., garai hartan, ezin zituelako egin gizonak egiten zituen hainbat gauza. Gainera, zigarroaren bazkal osteko tarte hau gizonen tarte bihurtzen zen, eta askotan bere gaiez (hau da, emakumeek entzun ezin izaten zituzten gaiez) hitz egiten zuten.

Erretzeko ohitura(3)...., erretzailearen profila eta erretzeko lekuen aukera zabaldu egin zen erabat.

Bestalde, XVII. mendeko gobernuek arin ikusi zuten tabakotik(4).... atera ahal zirela, eta laster konturatu ziren, lege baten bidez, tabakoari zerga berezi bat jarri ahal zitzaiola. Munduko ia gobernu guztiek asmatu zuten XIX. mendearen erdialderako, merkatu hau arautzen zuen lege bat.(5)...., Gobernuak etekin ederrak atera dizkio tabakoari zerga moduan.

Dena dela, ukaezina da tabakoak erretzaile asko gaitoxotu edo hiltzen dituela. Horren ondorioz, gobernuek diru asko(6).... behar izaten dute tabakoak sortzen dituenak sendatzeko. Hori dela eta, askok esaten dute tabakotik, gaur egun, ez dela lehen beste diru ateratzen, zeren eta tabakoak sortzen dituen(7).... sendatzea oso garestia baita.

Beraz, ez dut uste gobernuak erabaki hau hartu duenean, benetako gogoetarik egin duenik. Iruditzen zait dirua izan duela buruan, agian gehiago delako sendatzeko behar den dirua zergetatik ateratzen dena baino. Bitartean, erretzaile eta ez erretzaileok elkarri(8).... Noiz ikasiko dugu?

www.blogari.net/Hernaniue (moldatua)

— 2. testua —

Idatzi hutsune bakoitzari dagokion letra beheko laukietan.

1

- a) banatu
- b) elkartu
- c) batu

3

- a) handitu ahal bazen
- b) zabaldutakoan
- c) utzi eta gero

5

- a) onartu gabe
- b) onartzerakoan
- c) behin onartuta

7

- a) desabantailak
- b) gaixotasunak
- c) gaixorik

2

- a) emakumeak
- b) umeak
- c) gazteak

4

- a) gaixotasunak
- b) onurak
- c) arazoak

6

- a) kendu
- b) kitatu
- c) inbertitu

8

- a) errua leporatzen
- b) buruz pentsatzen
- c) bostekoa ematen

Idatzi erantzunak

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Letrak								



Irakasle batek hizkuntzei buruzko artikulua bat idatzi du Interneteko webgune batean.

Egitekoa

“Eleaniztasuna irakaskuntzan” testutik zenbait esaldi kendu egin dira eta horien lekuan hutsuneak jarri. Irakur ezazu testua arretaz eta, ondoren, **lotu kendutako esaldiak testuan ageri diren hutsuneekin**, adibidean egiten den bezala.

— 3. testua —

Eleaniztasuna irakaskuntzan



Gaur egun arte, Euskal Herriko eskoletan A, B eta D ereduak egon dira, ikasleek edota haien gurasoek, beren ustetan, ikasteko egokiena dena aukera dezaten. Horrela, denok

jakingo dugunez,(0).... gaztelaniaz ikasten dituzte arlo guztiak eta euskara eta ingelesa ikasgai moduan baino ez dituzte. B eredukoek, aldiz, matematikak izan ezik, beste guztia euskaraz ikasten dute; eta D eredukoek, azkenik,(1).... , gaztelania eta literatura irakasgaia izan ezik. Baina, gaur egunera arte, ingelesa ez dugu komunikatzeko hizkuntzat hartu gure ikasgeletan; alegia, ingelesa ikasi, ikasi dugu, baina gutako gutxik(2).... .

Horixe da, hain zuzen ere, eredu berriaren berrikuntza. Hortaz, hemendik aurrera, irakaskuntzan aritzen diren irakasle guztiek derrigorrezkoa izango dute(3).... edo behintzat hiru hizkuntzetan hitz egiteko eta eskolak emateko gaitzatea. Horregatik,

zenbat eta hizkuntza titulu gehiago izan irakasleek, orduan eta aukera gehiago izango dituzte lana aurkitzeko, hizkuntza bat soilik dakitenekin alderatuz gero, jakina.

Baina zer dela eta eredu berri hau?

Hurrek(4).... , askoz arinago eta errazago ikasten delako txikiak garenean, nagusiak garenean baino. Gainera, Eusko Jaurlaritzak diseinatutako curriculumaren arabera, Derrigorrezko Hezkuntza bukatutakoan, ikasle guztiek(5).... . Gaur egun, zoritxarrez, ez da horrela izaten, ikasle gehienek euskara eta gaztelania menperatzen dituzten arren, ingelesez aritzeko zailtasun handiak dituztelako. Arrazoiak, noski, asko izan daitezke, baina dudarik gabe, bi dira garrantzitsuenak:

- Batetik, ingelesa txikitatik ez ikastea.
- Eta bestetik, behar beste denbora ez ematea ingelesa ikasten.

Beraz, espero dezagun, eredu berri honekin 20 urte barruko Euskal Herriko gazteak, atzerrira doazenean behintzat,(6).... , ingelesez hitz egiten ez dakitelako.

gureblogami.blogspot.com (moldatua)

Lotu kendutako esaldiak testuko hutsuneekin, adibidean bezala. Kontuan izan bi esaldi sobera daudela.

Adibidea:

A. A ereduan ikasten duten umeek.

- B. barregarri ez geratzea.
- C. euskara agiriak edukitzea.
- D. euskara hutsean dituzte ikasgai guztiak.
- E. gai izan beharko dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez hitz egin eta idazteko.
- F. hiru hizkuntza hauek menperatzea.
- G. hitz egin ohi dute euskaraz.
- H. ikasi ahal izan dute beste ikasgairik ingelesez.
- I. txikitatik ikasi behar dituzte hiru hizkuntza hauek.

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan

Adibidea: 0 = A

Hutsuneak	0	1	2	3	4	5	6
Esaldiak	A						